

*æk*  
23.korrika

HARRRO  
HERRI

**Irundik Baionarat**  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

**HERRI**  
6-9 URTE

# INFORMAZIO OROKORRA ETA ARGIBIDEAK

## HELBURUA

Euskararen erabilera sustatzea eta indartzea. Helburu berarekin lanean diharduen AEK-k antolatutako KORRIKA ekimenaren zergatiak eta beharraz ohartzea.

## IRAUPENA

KORRIKA 23 martxoaren 14an hasiko da Irunen eta 24an amaituko da Baionan.

KORRIKA kanpainak bi asteko iraupena izango du. Betiere, irakasleen esku geratuko da KORRIKA hasi aurretik lanketa abiatzea, kanpaina bete-betean jarraitzea edo egun gutxiagotan burutzea.

## PROZEDURA

Bi asteko proposamena da hau, baina ez da ahaztu behar malgutasun osoa dagoela unitatea erabiltzeko garaian, jarduerak gehienak solteak baitira. Horrela, beraz, norberaren gustura antola daiteke lanketa. Bestalde, **unitate desberdinetako jarduerak erabilgarri izan litezke beste adin tarte batzuetarako ere. Irakasleen esku geratzen da gainerako unitateak begiratu eta gustuko jarduerak euren mailetara moldatzeko aukera.**

Jarduera bakoitza garatzeko zenbat egun edo saio erabili jakiteko gomendioa ere bertan duzue.

Proposatzen diren jarduerak ez dira soilik Euskara arloan egiteko. Euskararen normalizazioa edozein jakintza-arlotako

irakasleen ardura ere badenez, ikastetxeko irakasle eta gainerako hezitzaileen esku-hartzea oso garrantzizkoa izango da helburuak lortzeko garaian. Honenbestez, **garrantzitsua izango da irakasle-taldeak unitateak aurrera eramateko planifikazioa egitea.**

## EGITURA

Unitateak adinaren arabera antolatuta daude. Adin-tarte bakoitzari egokia zaion lanketa proposatzen da.

- HARRI (3-6 urte)
- HERRI (6-9 urte)
- ORRO (9-12 urte)
- KORRI (12-18 urte)

## MATERIALA ERABILTZEKO ARGIBIDEAK

Webguneak bi atal nagusi ditu: **unitate didaktikoen** atala eta **gida didaktikoena**.

**Unitate didaktikoen atala ikasleei zuzendurik dago**, bertan aurkituko baitituzte landuko duten unitate didaktikoko jarduerak. Horretarako, euren adin tarteari dagokion unitatean sartzea besterik ez dute. HARRO eta HERRI unitateetan gelako arbel digitalean proiektatzeko erabil litezke. ORRO eta KORRI unitateen kasuan ordea, ordenagailu eramangarrien bitartez, ikasleek eurek sartu ahal izango dute webgunean (Driveko fitxak eskuratzeko, dokumentuaren kopia bat egin behar da eta norberaren profilean gorde).

**Gida didaktikoen atala berriz, irakasleentzako da.** Bertan, unitate bakoitzari dagozkion azalpenak aurkituko dituzte. Landuko duten

unitatea aukeratu eta honen gida didaktikoa deskargatu beharko dute. Gidan agertuko zaizkie jarduera bakoitzaren nondik norakoak, txantiloiaik...

**Multimedia** atalean, jardueretan erabili beharreko baliabideak eskaintzen dira. Azkenik, **webgunea** atalean, Korrikako webgune ofizialerako sarbidea topatuko duzue.

## KIDETZE-PLANAK

Plangintza hauek ikasle helduak eta gazteagoak kidezeko proposamena egiten digute. Hainbat jardueratan, kidezte plana abian jartzeko azalpenak aurki daitezke: *ipuina, plazara dantzara!* eta *mezu sekretuak* jardueretan, esaterako.

Kidetzearen helburuak honako hauek dira:

- Elkarrekintzaren bitartez ikasle txiki eta nagusien euskara-erabilera eragitea.
- Ikastetxearen hizkuntz normalizazioan ikasle nagusiak subjektu aktiboak izatea eta ez hartzaile pasibo huts, horretarako ikasle helduenen protagonismoa bultzatzen da.
- Ikasle nagusiek ardurak eta konpromisoak har ditzaten bultzatzea.
- Ekintza honen bidez motibazioa indartzea, batez ere, ikasle nagusiekin.

Material hau, Euskal Herriko Ikastolak elkartearen koordinaziopean, hainbat profesionalen ekarpenak jasoz KORRIKArako egindako lan kolektiboa da.

## ARDURADUNA

Iñaki Zapirain Retegi

## LAGUNTZAILEA

Ane Beltran

## KOORDINAZIOA

Tito Serrano (AEK)  
Amaia Gutierrez (Ikastolen elkarte)

## IPUINAREN EGILEA

Goiatz Labandibar

## IPUIN KONTALARIA

Lur Korta

## ILUSTRAZIOA

Iñaki Zapirain Retegi

## KOREOGRAFIAREN EGILEA

Myriam Perez Cazabon

## DISEINUA

Arteman  
Komunikazioaren Artisauak

## ESKERRAK

Gema Inés  
Joseba Irazabal  
Orereta Ikastola

JARDUERAK HERRI	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
1. ZER DA KORRIKA?	KORRIKA 23ren girotze-lana eta aurkezpena.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleak 7 taldetxotan banatu eta bakoitzari KORRIKA hitza osatzen duen hizki bat esleitu.</li> <li>Talde bakoitzak egokitu zaion hizkia marraztu, aurkeztu eta hitz sekretua argitu.</li> <li>KORRIKAri buruzko galderei erantzun.</li> <li>Familiarekin fitxan informazioa bildu eta hurrengo egunean ikaskideekin partekatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Saio bat gelan</li> <li>Etxean tartea hartu fitxa gurasoeekin betetzeko.</li> <li>Saio bat fitxak biltzeko eta komentatzeko.</li> </ul>	Gelako tutorea
2. KANTA	KORRIKA 23ren girotze-lana eta aurkezpena, ikastetxean zein etxean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>Bideoklipa ikusi.</li> <li>Kanta entzun.</li> <li>Galderak erantzunez ikusitakoa eta entzundakoa partekatu.</li> <li>Sarrera/irteera orduetan, jolas-orduan... KORRIKA 23en abestia jarri.</li> <li>Etxean, www.korrika.eus webgunearen bidez, aurtengo kanta, baita aurreko edizioetakoak ikusi/entzun. familian.</li> <li>Kantaren hitzetan hutsuneak osatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Saio bat bideoklipa ikusi, kanta entzun eta hutsuneak betetzeko. lehen egunean.</li> <li>KORRIKAK irauten duen bitartean kanta entzuten jarraitu.</li> </ul>	Gelako tutorea
3. IPUINA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontakizuna entzutea: aditu eta ulertzeko gaitasuna lantzea.</li> <li>Hiztegia lantzea.</li> <li>Ahokotasuna, irakurketa, idazketa eta irudimena erabiltzea eta lantzea.</li> <li>Kidetze-plana abian jartzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ipuinaren izenburuaren inguruan hitz egin eta galderei erantzun.</li> <li>Ipuina irakurri edo kontaketa bideoa ikusi.</li> <li>Ipuinaren inguruko galderei erantzun.</li> <li>Ilustrazioa</li> <li>Ipuineko protagonisten marrazkiak egin eta KORRIKA 23ko ipuinaren ilustrazioa ikusi.</li> </ul> <p><b>Ahokorapiloak</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ahokorapiloen inguruko lanketa egin eta hauek sortu.</li> <li>*Kidetze-estrategiaren bidez, ikasle helduenek ipuina antzeztu dezakete.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ipuina lantzeko saio bat erabiltzea aurreikusten da: ilustrazioak egiteko edo ahokorapiloak asmatzeko.</li> <li>2. saio bat aurreikusten da kidetzea gauzatuko balitz.</li> </ul>	Gelako tutorea (Kidetzea gauzatzeko etapa desberdinetako irakasleen arteko koordinazioa beharko da)
4. LEKUKOA	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikasleak lekukoaren sinbologiaz ohartaraztea.</li> <li>Adierazpen plastikorako oinarrizko teknikak ezagutzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lekukoaren inguruan hitz egin eta galderei erantzun.</li> <li>Kartoizko tutuekin lekukoak sortu.</li> <li>Hurrengo jardueretarako lekukoak jaso.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Saio bat erabiliko da lekukoaren sinbologiaz hitz egiteko eta lekukoa sortzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plastikako irakaslea</li> <li>Gelako tutorea</li> </ul>

JARDUERAK HERRI	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
<b>5. MEZUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ikaslearen autoestimua eta autokonfidantza lantzea.</li> <li>Lekukoaren sinbologia lantzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>KORRIKAKo mezuaren nondik norakoak azaldu.</li> <li>Ipuina gogora ekarri eta galderei erantzun.</li> <li>Ispiluaren txantiloiean norbere burua marraztu eta izena idatzi.</li> <li>Gelan egindako lanak partekatu eta norberak bere burua maitatzearen garrantziaz hitz egin.</li> <li>Marraskia bildu eta lekukoan sartu.</li> <li>Lekukoa etxera eraman eta gurasoekin zabaldu eta partekatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gelan saio bat eskeiniko zaio marraskia margotu eta testua osatzeari.</li> <li>Etxean lekukoa zabalduko da gurasoekin.</li> <li>Biharamunean, irakasleak tarte bat hartuko du, etxeko esperientzia komentatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plastikako irakaslea</li> <li>Gelako tutorea</li> </ul>
<b>6. IBILBIDEA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>KORRIKA 23ren ibilbidea lantzea.</li> <li>Euskal Herria ezagutzea.</li> <li>Euskal Herriko hainbat herri ezagutzeko eta deskribatzeko gaitasuna garatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskal Herriko mapa gela barruan jarri.</li> <li>KORRIKA 23ren ibilbidea markatu: etapa bakoitzaren hasiera eta bukaera.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>KORRIKAK irauten duen egun guztietan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gelako tutorea</li> </ul>
<b>7. HARRO, HERRI, KORRI!</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Jolasaren bidez KORRIKA 23ren girotze-lanean sakontzea.</li> <li>Kontzentrazioa, memoria, behaketa eta irudimena garatzea.</li> <li>Ikasleen arteko harremanak sustatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Harro, herri, korri! jolasaren arauak azaldu.</li> <li>Laguntza bideoaren bitartez eskuekin gauzatu beharreko zeinuak barneratu.</li> <li>Irundik Baionara doan ibilbidea osatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Saio bat mahai-jolasarekin aritzeko.</li> <li>Nahi beste saio edo denbora tarte eskaini daitezke jolasean aritzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gelako tutorea</li> </ul>
<b>8. ARTELANA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>KORRIKA 23ren girotze-lana.</li> <li>Adierazpen plastikorako oinarrizko teknikak ezagutzea.</li> <li>Sormena lantzea.</li> <li>Euskal kulturako iruditegia ezagutzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>KORRIKA 23ko logotipoaren hondoko irudia proiektatu eta galderei erantzun.</li> <li>Euskara, euskal kultura edota KORRIKArekin lotura duten elementuak marraztu.</li> <li>Murala osatu eta KORRIKA 23ko leloa idatzi.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Saio bat gelan marrazkiak egiteko eta beste bat sortutako irudiekin murala osatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plastikako irakaslea edo gelako tutorea.</li> </ul>

JARDUERAK HERRI	HELBURUAK	EKINTZAK	DENBORALIZAZIOA	ARDURADUNA
<b>9.</b> <b>BINGO</b> <b>MUSIKATUA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• KORRIKA23ren girotze-lanean sakontzea.</li> <li>• KORRIKAK historian zehar izan dituen kantak eta hauen egileak ezagutzea.</li> <li>• Euskal musikaren aniztasunaz ohartzea eta kanta hauekin jolastuz ondo pasatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• KORRIKako edizio desberdinetako kantak ausaz entzun.</li> <li>• Kantak identifikatu eta txartelean markatu.</li> <li>• Lerroa edo txartel osoa osatu arte jolasean aritu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saio bat gelan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako tutorea edota Musika irakaslea.</li> </ul>
<b>10.</b> <b>PLAZARA</b> <b>DANTZARA!</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• KORRIKA 23ren girotze-lana.</li> <li>• Gorputz adierazpena sormenezko komunikazio eta adierazpide gisa erabiltzea.</li> <li>• Gorputzaren kontzientzia eta koordinazioa hobetzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bideo tutorialaren laguntzaz koreografiako urratsak ikasi.</li> <li>• Entseguak egin.</li> <li>• Emanaldia gauzatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saio bat koreografiako urratsak ikasi eta hauen arteko loturak finkatzeko.</li> <li>• Entseguak egiteko saioak, beharraren arabera.</li> <li>• Azken saio bat, emanaldirako.</li> </ul>	<p>Gelako tutorea (Kidetzea gauzatzeko etapa desberdinetako irakasleen arteko koordinazioa beharko da)</p>
<b>11.</b> <b>OMENALDIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• KORRIKAK euskararen alde dihardutenak omentzen dituela jakinaraztea.</li> <li>• KORRIKA 23ko omenduak ezagutzea eta omenaldi txiki bat eskaintzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• KORRIKAK edizio euskararen alde diharduen pertsonak omentzen dituela eta aurtengo omenduak Azterketak euskaraz mugimendua dela adierazi.</li> <li>• Iparraldean bizi duten egoeraz hitz egin eta iritziak partekatu.</li> <li>• Elkartasuna adierazteko marrazkiak egin edo mezuak idatzi eta iparraldeko lagunei bidali.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Saio bat omenduen inguruan hitz egiteko eta marrazkiak edota mezuak idazteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako tutorea.</li> </ul>
<b>12.</b> <b>PETOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Adierazpen plastikorako oinarritzko teknikak eta baliabideak erabiltzea.</li> <li>• Sormena lantzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Petoan marrazkia egin.</li> <li>• Petoa margotu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Plastika arloko saio bat.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Plastikako irakaslea edota gelako tutorea</li> </ul>
<b>13.</b> <b>KORRIKA</b> <b>TXIKIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• KORRIKA 23ren girotze-lana.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Petoa jantzi, lekukoak eta pankartak hartu eta lasterka egiteko prestatu.</li> <li>• KORRIKA txikirako prestatutako egitaraua aurrera eraman.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• KORRIKA herritik pasatzen den egunean, baita aurreko egunetan ere bai.</li> <li>• Ikastetxeko ordutegian.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gelako tutorea.</li> </ul>

# 1. ZER DA KORRIKA?

## SARRERA

Jarduera honetan proposatzen dena, KORRIKA 23ren gaian murgiltzen hasia da, jolas kooperatibo simple baten bidez: hitz sekretua.

Gaiarekiko jakin-mina piztea, talde-lana sustatzea eta irakurketa/idazketa doi bat lantzea ditugu helburu nagusiak. Jolas honi txertatuko zaio ohiko fitxa, familia inplikarazteko xedez.

## PROZEDURA

- Ikasleak zazpi talde txikitan banatuko dira, taldetxoen arteko kopuruak orekatzen saiatuz. Taldetxo bakoitzak tamaina handiko orrialde zuri bat izango du, baita margoak ere.
- Irakasleak taldetxo bakoitzari KORRIKA osatzen duen letra bat belarrira xuxurlatuko dio, nahas-mahas: gainerako taldetxoek ez dute jakin beharko besteak zertan ari diren. Sekretua ondo-ondo gordetzea eskatuko zaio taldetxo bakoitzari.
- Talde bakoitzak ekin beharko dio bere letra margotzeari, ahal bezain koloretsu, gainerako taldeekin marrazten ari diren letra partekatu gabe.
- Taldetxo bakoitzak bere letra amaitu duenean, taldetxo guztiak elkarri begira jarriko dira. Oraingoan bai: bakoitzak bere letra ondo-ondo azaldu beharko du talde handian! Ea letra-zopa horretatik asmatzen duten hitza: KORRIKA!
- Jolasa bukatzerakoan, umeei etxera eraman beharreko fitxaren berri emango diegu. Ikasle bakoitzak fotokopia bana eramango du (atxikita doaz ikasleei banatu beharreko fitxak).
- Ikasle bakoitzak KORRIKari buruzko lehen hausnarketa egingo du familian.

- Biharamunean, irakasleak sarrera emango dio jarduerari. Ikasle bakoitzak etxean egindako hausnarketa ahots ozenez kontatuko du: zer dakien KORRIKari buruz, zer kontatu dioten etxean, etab.
- Irakasleak ikasleen ekarpenak osatu eta aberastuko ditu eta ordenagailuan KORRIKA 23ko aurkezpen [bideoa](#) jarriko du. Aurreko edizioetako [argazkiak](#) ere ikus litezke.
- KORRIKA 23ren leloaren berri emango du eta honen inguruan elkarrizketa bideratuko du KORRIKA 23ren aurkezpenari amaiera emateko.
  - Ezagutzen al dituzue “harro” eta “herri” hitzak?
  - Zer esan nahi dute?
    - **Harro/harrotasuna:** norbera bere buruarekin gustura sentitzea edo ideia batzuekiko atxikimendu handia sentitzea.
    - **Herri/herria:** komunitatea, lurraldea, pertsonak osatzen duten jendemultzoa.
  - Zein mezu eman nahi izan digute HARRO HERRI leloarekin?
    - Dugunaz eta garenaz harro sentitu behar dugula. Gure hizkuntzaz eta gure herriaz, harro.
  - Zuek harro al zaudete zuen buruaz? Harro sentitzen al zarete euskadun izateaz?

# 1. ZER DA KORRIKA?

## Elkarrizketa bideratzeko lagungarri:

Iritsi da lotsa galtzeko unea, heldu da garenaz harro gaudela esateko momentua.

Bidegurutze honetan, garaia da ispilu aurrean jarri eta aho betez oihukatzeke euskaraz bizi nahi dugula. Oihu ozena, harro nabarmentzeko hizkuntza propio eta zoragarria dugula, eta honen defentsan ausardiaz jokatzeko garaia dela.

Euskararen alde eta euskaraz harro gaude, euskal herritarren hizkuntza delako, euskal hiztunena eta izango direnena. Familia, lagunarte, erakunde, enpresa... denok osatzen dugu euskal komunitatea, eta denok egingo dugu bultza aurrera. Egin ohi dugun festa, jarrai dezala izaten aldarri: denon ahotan, denok irrintzi, eta helburu bakarra, mundu euskaldun bat irabazi.

Euskarak mugitzen du KORRIKA, eta KORRIKAK mugituko du euskal komunitatea.

Mugimenduak sortzen baitu mugimendua. Izan harro! Orainarte egindakoaz eta egiteko dugunaz. Euskara hizkuntza akademikoa baino askoz gehiago delako, espazio informalak bilakatu nahi ditugulako indargune. Horrexegatik bizi nahi dugu lotsa gabe, horrexegatik ozen esan nahi dugu gureaz harro gaudela eta prest gaudela euskarari plaza berriak zabaltzeko.

Harro herri! Lotsa galdu eta erabiliz aldarrikatu gurea dugun hori. Harro herri eta hedatu euskara espazio berrietara, posizio berrietara. Harrotasunez hartu komunitatean eragiteko ardura, ekarri dezagun euskara egunerokora, lagunartera, plazara.

## Oharra:

Ikasle zaharrenekin, egokiago ikusiko balitz, ORRO unitateko "Zer da Korrika? jarduera egin liteke.

## BALIABIDEAK

- A3 neurriko orri zuriak
- Margoak
- Ikasleei banatzeko fitxa.
- Ordenagailua eta proiektagailua.

# 1. ZER DA KORRIKA?

## KORRIKA 23

Ikaslearen izen-abizenak:

.....

Zer da KORRIKA?

.....

.....

.....

.....

Noiz pasatuko da KORRIKA gure herritik?  
(edo inguruko herrietatik):

.....

.....

Parte hartuko al dugu aurtengo KORRIKAn?

.....

.....

Bilatu etxean KORRIKako argazkiren bat (aurreko edizioetan parte hartu genueneko, gure herritik pasatu zenekoa, amaierako festakoa, prentsatik ebakitakoa ...).

Argazkirik aurkitzen ez badugu, marrazki ederra ere egin dezakegu!

## ARGAZKIA





## 2. KANTA

### SARRERA

23. KORRIKari hasiera ematea eta girotzen hastea da kantaren helburua. Ikasleak eta ikas-tetxeak, noski, baita, txikienekin, familiak ere bai.

Maite Arroitauregi Aranburu "Mursego" izan da Korrika 23ko kanta korralaren zuzendari artistikoa. Bera izan da kantan parte hartzen duten abeslarien gidaritza eraman duena.

Amaia Astobizak aldiz, Korrika 23ko leloa oinarri harturik, hitz joko jolasti bat proposatu digu aurtengo kantaren hitzetan. Harro herri korrika, bagara!

Ohiko kanta-egituratik kanpora begiratu duen abesti poliedriko bat da honako hau, pop ukituak, harmonikoak, sinfonikoak, kaotikoak... dituena. Abeslari eta musikari bakoitzaren ekarpen bereizgarriak elkartu eta bat egiten dute alaitasunez, dramatismoz eta umorez betetako melodian.

Abestiak bere berezitasunez harro dagoen herriari keinu egiten dio.

Kantaren letretan hutsuneak utziz, ikasleen entzumena eta ulermena lantzeko aukera dago, baita hiztegia lantzeko ere.

Bestalde, aurtengo edizioko abestia instrumentuekin interpretatu ahal izateko baliabideak ere eskaintzen dira.

### PROZEDURA

- Gelan dauzkagun baliabideak erabiliko dira (ordenagailua, bozgorailuak...), kanta maiz erreproduzitzeko, egokia zaigun orduetan.
- Lehen entzunaldian (edota bideokliparen ikustaldian), ondorengo galderen inguruan arituko gara lanean:
  - Zer iruditu zaizue kanta, bideoklipa?
  - Zer da gehien gustatu zaizuena? Zerk eman dizue arreta?
  - Gustatzen al zaizue musika estilo hau? Ezagutzen al dituzue abeslariak?
  - Zer hitz egin zaizue ezagun/ ezezagun?
- Lanketa interesgarriak egin daitezke lexikoaren inguruan, baita kultur-ezagutzan eta musika estilo desberdinen inguruan. Sarean ikertu liteke artisten inguruan, badok.eus bezalako webguneak erabiliz.
- Kantaren letra komentatuko da talde handian eta ikasleei KORRIKako unitate didaktikoen webgunearen berri emango zaie, aurreko edizioetako bideoklipak ikus ditzaten. Hurrengo saioan, bakoitzak esan beharko du zein izan duen gustukoena eta zergatik. Kanta gustukoena gelan jarriko da.
- Ez ahaztu bideoklipa azpituluekin edota karaoke moduan eskuragarri dela sarean, molde alaian eta partekatuan ikasteko, KORRIKA TXIKIari begira.

- Ikasleen etxeetan ildo beretik jarraitzeko, Korrikako unitate didaktikoen webgunearen berri emango zaie gurasoei, bideoklipa interneten begiratzeko, baita gomendatuko aurreko edizioetako kantak ere ezagutzeko, etxea girotzeko. Kantaren hitzen itzulpenak ere eskura izango dituzte gurasoek.

### Letra: Hutsuneak bete

- Lanketarekin jarraitu nahi izanez gero, kantaren letra hutsuneekin euskarri idatzian emango zaio ikasle bakoitzari (binaka edota taldeka egiteko aukera ere badago).
- Kanta entzutera emango da bi aldiz, ikasleak hutsuneak betetzen saiatzeko.
- Azken entzunaldiaz baliatuz, talde handian emango dira erantzunak.
- Irakasleak aukera dezake zein hitz ezkutatu nahi duen, ikasleen adinaren arabera, edo landu nahi duena kontutan hartuz.

### Oharra

Ikasle helduenekin kanta interpretatu nahiko balitz ORRO unitateko "Kanta" jardueran aurkituko dituzue partiturak.

### BALIABIDEAK

- Korrikako unitate didaktikoen webgunea.
- Ordenagailua eta bozgorailuak
- Kantaren hitzak eta itzulpenak
- Ordenagailua eta bozgorailuak

## 2. KANTA

### HARRO HERRI

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Bagara!

Ku kukulumuxu  
Koko kokoriko  
Euskararen sarea  
Ez da eroriko

Ahoa bizi-bizi  
Prest belarriak  
Eskuz esku heldurik  
Lehertu eztarriak

Ku kukulumuxu  
Koko kokoriko  
Algara batean  
Edo afoniko

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Bagara!

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Hizkuntzak hiztunekin  
Aberasten dira

Argazki bat ipini  
lasterka egina  
Bihotz, muxu, irrintzi  
Nik bai eragina!

Onlineko txatean  
Ez zirri ez mirri  
gorputzen epelean  
ikimilikikirri

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Harro herri  
Hona gu euskaldunak  
Euskararen lagunak  
Hats eta izerdi

Ku kukulumuxu  
Ko-ko kokoriko  
Algara batean  
Edo afoniko

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Lurrarekin batera  
Jira eta bira

Esku bat nirea  
Bestea zurea  
Eman bostekoa  
Izan dadin gurea

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Bagara!

Herri harro  
Sarean ta kalean  
Bihotza pil-pilean  
Tik-tak, tik-tak, tik-tok

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Bagara!

Ku kukulumuxu  
Koko kokoriko  
Euskararen sarea  
Ez da eroriko

Ikasten bazabiltza  
Egin gurekin  
Elkar ulertu arte  
Ekin ta ekin

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Lurrarekin batera  
Jira eta bira

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Hizkuntzak hiztunekin  
Aberasten dira

Hizkuntzak ikastera  
Bagoaz kanpora  
Zergatik ez herrian  
Euskara ahora

(irakurtzeko)  
Ez badigute ematen,  
arrazoia guri  
Su emango diogu,  
haien legeari

## 2. KANTA

### HARRO HERRI (Hizki larriz)

HARRO HERRI .....  
HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
.....!

KU KUKULUMUXU  
KOKO .....  
EUSKARAREN SAREA  
EZ DA .....

AHOA BIZI-BIZI  
PREST .....  
ESKUZ ESKU HELDURIK  
..... EZTARRIAK

KU KUKULUMUXU  
KOKO KOKORIKO  
ALGARA BATEAN  
EDO AFONIKO

HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
BAGARA!

HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO ..... KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
.....!

MINGAINAZ MINGAINA  
MINTZAIKAZ MINTZAIKAZ  
.....  
HIZTUNEKIN  
ABERASTEN DIRA

.....BAT IPINI  
LASTERKA EGINA  
BIHOTZ, ....., IRRINTZI  
NIK BAI ERAGINA!

..... TXATEAN  
EZ ZIRRI EZ MIRRI  
GORPUTZEN .....  
IKIMILIKILKIRRI

HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
PLAZARA!

HARRO HERRI  
HONA GU .....  
EUSKARAREN LAGUNAK  
..... ETA IZERDI

KU .....  
KO-KO KOKORIKO  
..... BATEAN  
EDO AFONIKO

MINGAINAZ MINGAINA  
MINTZAIKAZ MINTZAIKAZ  
LURRAREKIN .....  
JIRA ETA BIRA

ESKU BAT NIREA  
..... ZUREA  
EMAN .....  
IZAN DADIN GUREA

HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
BAGARA!

HERRI HARRO  
..... TA KALEAN  
BIHOTZA PIL-.....  
TIK-TAK, TIK-TAK, TIK-TOK

HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO ..... KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
.....!

KU KUKULUMUXU  
KOKO KOKORIKO  
EUSKARAREN .....  
EZ DA .....

IKASTEN .....  
EGIN GUREKIN  
..... ULERTU ARTE  
EKIN TA .....

HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
PLAZARA!

MINGAINAZ .....  
MINTZAIKAZ MINTZAIKAZ  
..... BATERA  
JIRA ETA BIRA

HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
HARRO HERRI KORRIKA  
PLAZARA!

MINGAINAZ MINGAINA  
MINTZAIKAZ MINTZAIKAZ  
HIZKUNTZAK HIZTUNEKIN  
..... DIRA

HIZKUNTZAK IKASTERA  
..... KANPORA  
ZERGATIK EZ HERRIAN  
.....

(IRAKURTZEKO)  
EZ BADIGUTE EMATEN,  
ARRAZOIA GURI  
SU EMANGO DIOGU,  
HAIEN LEGEARI

## 2. KANTA

### HARRO HERRI (Hizki xehez)

Harro herri .....  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
.....!

Ku kukulumuxu  
Koko .....  
Euskararen sarea  
Ez da .....

Ahoa bizi-bizi  
Prest .....  
Eskuz esku heldurik  
..... eztarriak

Ku kukulumuxu  
Koko kokoriko  
Algara batean  
Edo afoniko

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Bagara!

Harro herri korrika  
Harro ..... korrika  
Harro herri korrika  
.....!

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
.....  
hiztunekin  
Aberasten dira

.....bat ipini  
lasterka egina  
Bihotz, ....., irrintzi  
Nik bai eragina!

..... txatean  
Ez zirri ez mirri  
gorputzen .....  
ikimilikikirri

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Harro herri  
Hona gu .....  
Euskararen lagunak  
..... eta izerdi

Ku .....  
Ko-ko kokoriko  
..... batean  
Edo afoniko

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Lurrarekin .....  
Jira eta bira

Esku bat nirea  
..... zurea  
Eman .....  
Izan dadin gurea

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Bagara!

Herri harro  
..... ta kalean  
Bihotza pil-.....  
Tik-tak, tik-tak, tik-tok

Harro herri korrika  
Harro ..... korrika  
Harro herri korrika  
.....!

Ku kukulumuxu  
Koko kokoriko  
Euskararen .....  
Ez da .....

Ikasten .....  
Egin gurekin  
..... ulertu arte  
Ekin ta .....

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Mingainaz .....  
Mintzairaz mintzaira  
..... batera  
Jira eta bira

Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Harro herri korrika  
Plazara!

Mingainaz mingaina  
Mintzairaz mintzaira  
Hizkuntzak hiztunekin  
..... dira

Hizkuntzak ikastera  
..... kanpora  
Zergatik ez herrian  
.....

(irakurtzeko)  
Ez badigute ematen,  
arrazoia guri  
Su emango diogu,  
haien legeari

# 3. IPUINA

## SARRERA

KORRIKA 23ren leloarekin lotura jolastiak eginez aurkezten zaigu edizio honetako ipuina, *Ispilu harrogarrria* izenburupean. Harri eta Nora izeneko neska-mutilak izango ditu protagonista.

Haitzuloko oihartzunarekin eta bertan aurkituko duten ispiluarekin dibertituko dira bi lagunak, ahokorapiloak sortuz eta ispilu aurrean memelokeriak eginez, barrez lehertu arte. Harrotasuna ere sentituko du Harrik, ispilu aurrean ikusten duen horrekiko.

23. KORRIKAK gure hizkuntzaz, dugunaz eta garenaz harro egotera animatzen gaitu eta ipuinak aitzakia paregabea emango digu ideia hauen inguruan hitz egiteko. Nola sentitzen zarete zuek? Harro al zaudete zuen buruaz? Iritsi da lotsa galtzeko unea!

## PROZEDURA

- Irakasleak ipuinaren izenburua (Ispilu harrogarrria) aipatuko die ikasleei eta ipuina zeren ingurukoa izan daitekeen galdetuko die. Ikasleen ekarpenak partekatuko dituzte taldean.
- Lur Korta ipuin kontalariaren ipuin kontaketa bideoa proiektatuko da gelan edo irakasleak ipuina ahots ozenez irakurriko du, dramatizazio eta intonazio egokia baliatuz.
- Ikasleei ipuinari buruzko galderak egingo zaizkie, ulermena eta hiztegia lantzeko.

## Galdera posibleak:

1. Nola izena dute ipuineko pertsonaiek?
2. Nolakoak irudikatzen dituzue?
3. Egon al zarete sekula haitzulo baten barruan?
4. Entzun al duzue inoiz oihartzunik? Non? Noiz?
5. Ezagutzen al duzue ahokorapiloric?
6. Sentitu al zarete noizbait zuen buruarekin lotsatuta? Zein egoeretan? Zergatik?
7. Zergatik lotsatzen ote da Harri?
8. Sentitu al zarete noizbait zuen buruaz harro? Zein egoeretan? Zergatik?
9. Zerrendatu ditzagun guztion artean harro egoteko ditugun arrazoiak!

- Beste saio bat erabil daiteke, kidezte estrategia erabiliz, DBHko ikasleen ipuin kontaketa entzuteko edo antzezpena ikusteko.

- Ipuinaren lanketarekin jarraitzeko bi proposamen lizatzen dira jarduera honetan, adinaren eta ikasleen gaitasunen arabera gauzatzeko..

## Ilustrazioa:

- Ipuineko pertsonaien izenak (Harri eta Nora) idatziko dituzte arbelean eta pertsonaia bakoitza nola irudikatzen duten partekatuko dute talde handian, euren ezaugarriak aipatuz.
  - Nolakoa da Nora? (ezaugarri fisikoak eta nortasuna)
  - Nolakoa da Harri? (ezaugarri fisikoak eta nortasuna)
- Talde handian egindako hausnarketaren ondoren, ikasle bakoitzak pertsonaien marrazkiak egingo ditu haitzulo barruan (ikus txantiloia). Horretarako, margo mota desberdinak eskeini dakizkieke. Koloretako paper zatiak ere erabil daitezke, collage teknika erabiliz irudiak sortzeko.
- Ipuinaren ilustrazioa erakutsi daiteke amaieran eta eurek sortu dituzten marrazkiekin konparatu.

## Oharra:

Irakasleak horrela erabakiko balu, ipuinaren ilustrazioa ere eman dakieke ikasleei, irudiak sortu beharrik gabe, marrazkiak margotu ditzaten.

### 3. IPUINA

#### Ahokorapiloak:

- Ipuinaren jarduera zinez egokia izan daiteke ikasleekin ahokorapiloen inguruan hitz egiteko, dakizkitenak partekatzeko eta berriak sortzeko.
- Ipuinarekin lotura eginez, irakasleak ahokorapiloen inguruan galdetuko die ikasleei. Baten bat ezagutzen badute, gelan ahots gora botatzeko eskatuko diegu.

#### Ahokorapiloen adibideak:

- Akerrak adarrak okerrak ditu, adarrak akerrak okerrak ditu, okerrak adarrak adarrak ditu.
- Entzun, erantzun, entzun, erantzun. Barnean, kanpoan, hitzak oihartzun!
- Hitzaren giltza, hitzaren giltza, ahoa ireki eta elkarrekin mintza!
- Ahokorapiloak sortzeko proposamena egingo zaie ikasleei. Horretarako, ondorengo urratsak jarraitzeko eskatuko diegu.
  - Ikasleak talde txikitan kokatuko ditugu eta soinu aldetik antzekoak diren edo errimatzen duten hitzen zerrenda bat osatzeko eskatuko diegu. Aurretik errima zein den adostu beharko dute.

#### Adibideak:

- |               |           |
|---------------|-----------|
| • Harri       | • Nora    |
| • Eztarri     | • Aiora   |
| • Egarrri     | • Nora    |
| • Freskagarri | • Bilbora |
| • Zoragarri   | • Edonora |

Zerrendan bildutako hitzak erabiliz esaldi laburrak osatzeko esango diegu, ahal dela, gutxieneko zentzu bat dutenak.

- |  |  |
|--|--|
| • Harrik eztarria egarrri.                     | • Nora eta Aiora, nora eta Bilbora! Hauek edonora! Baita Baionara! |
| • Harri egarrri, eztarrian behera freskagarri! |  |

Talde bakoitzak sortu dituen ahokorapiloak gelakideekin partekatuko ditu ahots gora irakurriz.

#### Oharra:

Ikasleekin ahokorapiloak sortzeko zailtasunak ikusiko balira, hitz jolasen inguruko lanketan sakontzeko ipuineko ahokorapiloak ekar daitezke gogora eta ondoren, euskal literaturan argitaratu diren liburuak baliatuz, ahokorapilo, hitz joko eta poemak irakurri ikasleei.

#### Hona hemen liburu proposamen batzuk:

1. *Axa mixa zilarra*. Jesus Mari (Txiliku) Olaizola Lazkano eta Elena Odriozola Belástegui
2. *Auskalo! Igarkizun eta aho-korapiloak*. Xabier Olaso eta Agurtzane Villate
3. *Xomorro poemak*. Leire Bilbao eta Maite Mutuberria
4. *Joemak eta Polasak*. Iñigo Astiz Martinez eta Maite Mutuberria
5. *Abere ba*. Bigara

- Ahokorapiloen lanketari amaiera emateko, ["Akerra ikusi dugu"](#) kanta ere entzun daiteke.

#### BALIABIDEAK

- Ipuina
- Ipuin kontaktaren [bideoa](#)
- Haitzuloaren txantiloia
- Ipuinaren ilustrazioa

### 3. IPUINA

#### ISPILU HARROGARRIA

Harri eta Nora bi lagun dira. Nora lotsagabe samarra da, eta Harri, berriz, lotsati-lotsatia. Baina elkarrekin oso ongi moldatzen dira.

Egun batean, Norak Harriri egun batzuk lehenago aurkitu zuen toki berezi bat erakutsiko ziola esan zion.

Oinez ibili behar izan zuten pixka bat, eta nahikoa ezkutuan zegoen harri-tarte batetik pasatu.

- Hortxe da! -esan zuen Norak, haitzulo baten sarrera seinalatuz.

Bai, haitzulo bat zen Noraren toki sekretua.

Barrura sartu ziren eta Norak aurrera egin zuen. Harri pixka bat beldurtu zen eta atarian geratu zen, baina Norak dei egin zion:

- Harri! Etorri! - eta haitzuloak oihartzun egin

zuen: -rri, -rri, -rri... - Ispilu bat topatu dut haitzulo barruan!

- Nor dago zurekin? -galdetu zion Harrik.

- Inor! -or, or, or esan zuen oihartzunak.- Ni bakarrik nago! Oihartzuna da hori! – eta berriz ere oihartzunarekin erantzun zuen haitzuloak: -ri, -ri, -ri...

Harri ispilu ondora heldu zenean, Nora keinuka hasi zen: eskuekin bi masailei tiraka, mihia atera eta sudurra ukitzen saiatzen, hatzekin belarriak mugitzen... Oso barregarria zen!

Harri lotsatiak begiratu egiten zion, baina ez zen ausartzen ispilu aurrean jartzen.

- Orain zu! -esan zion Norak.

- Lotsa ematen dit... -erantzun zion Harrik.

- Zergatik? Zure burua ikusteak lotsatzen al zaitu? Niri oso dibertigarria iruditu zait. Zatoz, biok jarriko gara ispilu aurrean!

Lagunarekin batera ispilu aurrean jartzeak lotsa gutxiago ematen zionez, jarri zen ispilu aurrean Harri ere.

- Harri, irri! –esan zuen Norak, eta haitzuloak oihartzun egin zuen berriz: -rri,

rri, rri...

- Harri, esan zerbait! Ez lotsatu!!

- Nora, gora! -erantzun zuen Harrik, lotsak gainetik kenduta, eta baita

haitzuloak ere erantzun! -ra, ra, ra...

- Inurri! Bihurri! Etorri! – Norak eta -rri, -rri, -rri haitzuloak.

- Badirudi ahokorapiloak asmatzen ari garela! -otu zitzaion Harriri.

Nora berriz hasi zen masailei tiraka, mihia atera eta sudurra ukitzen saiatzen, hatzekin belarriak mugitzen eta Harri ere, pixkanaka lotsak galdu eta ispilu aurrean keinuka eta irrintzika hasi zen.

Bi lagunek tripan min izan arte egin zuten barre eta irri.

- Dagoeneko ez zaude lotsatuta. Ez al zaude zure buruaz harro lotsa gainditu duzulako? – galdetu zion lagun Norak Harri lotsatiari.

Eta Harrik pentsatu zuen baietz; harro zegoela ispiluan ikusten zuen ume hartaz.

Haitzulo sarreratik heltzen zen argia apaltzen hasi zenez, jakin zuten bazela garaia etxera itzultzeko.

Saltoka eta korrika, bakoitza bere etxera abiatu zen, afaltzeko ordua izango baitzen laster.

***Eta harro herri... egin orro eta korri!***



*æk*  
23.korrika

**HARRO  
HERRI**

Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra







23. <sup>æ</sup>korrika

**HARRO  
HERRI**

Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra





æk  
23.korrika

**HARRO  
HERRI**



Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

# 4. LEKUKOA

## SARRERA

Ikasleak KORRIKako lekukoaren sinbologiaz eta garrantziaz jabetzea da jarduera honen helburua.

Horretarako, irakasleak lekukoaren inguruko galderak luzatuko ditu gelan. Denon artean argituko dute lekukoa, ibilbide guztian zehar eskuz-esku pasatzen den makila dela, barruan mezu sekretu bat daramana, amaierara iristen denean argitzen den mezua.



## PROZEDURA

- Ikasleei komuneko edo sukaldeko paperaren tutuak ekar ditzaten eskatuko diegu jarduera egin aurretik. Ikasle bakoitzak bere lekukoa izango du.
- Irakasleak elkarrizketa hasiko du ikasleei lekukoaren inguruko hainbat galdera eginez:
  - Ba al dakizue zer den lekukoa?
  - Lekukoaren barruan zerbait al dago? Zer?
  - Noizbait eraman al duzue zuen eskuekin gogor eutsita?
  - Badakizue nork egin zuen KORRIKako lekukoa?










Testigua edo lekukoa, eskuz esku doan makila Remigio Mendiburu artistak diseinatu eta egin zuen 1980. urtean. 1988 arte pieza hau ibili zen Euskal Herrian barrena. 1988az geroztik, Juan Gorriti eskultoreak eginiko kopia da herriz herri dabilena.

Remigio Mendibururen artelana, 1980ko Korrikaren lekukoa alegia, Donostiako San Telmo Museoaren erakusketa iraunkorren dago ikusgai, "modernitatearen hasiera" deritzon atalean.

- KORRIKA 23ren irudiez balia daiteke, tutuak apaintzeko edo tenperak erabiliz margotu, gustuko koloreak erabiliz.
- Azkenik, pinotxo-papera baliatuz koloretako zintak egin eta goiko muturrean itsatsi.
- Lekukoak ikasgelan gordeko ditugu hurrengo jardueran landuko duten mezua bertan sartu eta etxera eramateko.

## BALIABIDEAK

- Komuneko edo sukaldeko paperaren barrualdeko tutuak.
- Lekeda.
- Margoak.
- Koloretako zintak (pinotxo-papera, lazoak, hariak...)
- KORRIKA 23ko logoak.



# 5. MEZUA

## SARRERA

Jarduera honen helburua, ikasleak KORRIKAren mezuarekin jolastea da, erritual horretaz jabetzea eta nolabait, eurek ere erritual hori gauzatzea, modu xumean bada ere.

Horretarako margoketa erabiliko dugu sarbide erakargarri gisa.

Familiak KORRIKA 23ra animatzea ere bada jarduera honen helburua.

## PROZEDURA


- Sarrera gisa, irakasleak KORRIKako mezuaren berri emango die, ibilbide guztian zehar lekuko barruan sartuta joaten dela azalduz, amaieran irakurtzen dela adieraziz eta amaiera arte mezuaren sortzailea zein den sekretua izaten dela aipatuz.
- *Ispilu harrogarria* ipuina ekarriko du gogora irakasleak eta ipuineko lagunek ispiluarekin eman nahi izan duten mezuaren inguruan hausnarketa bideratuko du, beraiek ere beren buruaz harro sentitu daitezkeela adieraziz.
  - Zer esan nahi du harro sentitzeak?
  - Zergatik sentitu da harro Harri?
  - Zuek harro al zaudete zuen buruaz? / Maite al duzue zuen burua?
- Ikasle bakoitzak bere mezua sortuko duela adieraziko die irakasleak, lekuko barruan sartuta etxera eramateko.
- Ikasleei ispilu baten silueta ageri den marrazkia emango zaie eta bertan euren buruaren marrazkia egiteko eskatuko diegu.
- Ispiluaren goikaldean, euren izena idazteko eskatuko diegu.

- Egindako lanak gelan partekatuko dituzte. Bakoitzak bere marrazkia erakutsiko du eta norberak bere burua maitatzearen garrantziaz hitz egingo dugu.
- Egindako marrazkiari musutxo bat emanez amaitu daiteke jarduera.
- Bakoitzak bere margolana bildu, eta aurrez egindako lekukoan sartuko du.
- Ikasle bakoitzak bere lekukoa eramango du etxera, eta bertan, gurasoekin batera zabalduko du, mezua elkarrekin komentatuz.
- Biharamunean, irakasleak tarte bat edukiko du, etxekoa nola iragan den komentatzeko, eta KORRIKARA animatzen diren galdetzeko.

## BALIABIDEAK

- Ispiluaren siluetaren marrazkia
- Margoak
- Aurrez ekoiztutako lekukoak

NI, \_\_\_\_\_  
NIRE BURUAZ HARRO NAGO.



# 6. IBILBIDEA

## SARRERA

Jarduera honen helburua KORRIKA 23ren jarraipena egitea da. Horretarako, [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus) webgunean erakusgai dagoen GPS bilatzailea erabiliko duzue.


KORRIKA egunez egun zein bazterretan dagoen jakiteaz gain, Euskal Herriko txoko eta bazterrak gehiago ezagutzeko aukera izango dugu.

## PROZEDURA

- Euskal Herriko mapa gela barruan edo ikastolako pasabideetan jarriko da eta bertan KORRIKA 23ren ibilbidea markatuko dugu: KORRIKA non hasten den, non amaitzen den eta egun bakoitzeko etapen hasiera eta amaiera puntuak.
- Egun bakoitzean, hasiera-puntutik bukaerarainoko ibilbidea markatuko da.
- Egun guztietan antzeko orduan webgunea begiratu eta momentu horretan KORRIKA non dagoen markatuko da mapan.
- Aukera ikusiko balitz, prentsan, eta batez ere interneten topatutako argazkiak mapan kokatu eta lekuen deskribapenak osatuko ditugu.

## BALIABIDEAK

- Euskal Herriko mapa
- KORRIKA 23ren ibilbidea
- Ibilbidea.Herriak eta orduak
- [www.korrika.eus](http://www.korrika.eus) webgunea.
- Eranskailuak.





# 23. KORRIKA IBILBIDEA

HERRI  
6-9 URTE



## MARTXOAK 14, OSTEGUNA

Irun	16:00
Hondarribia	16:37
Irun	17:10
Hendaia	17:26
Ziburu	18:45
Donibane Lohizune	19:08
Azkaine	19:40
Itsasu	21:58
Kanbo	22:43
Uztaritze	23:29

## MARTXOAK 15, OSTIRALA

Hazparne	00:47
Donapaleu	04:11
Arüe	05:29
Maule	06:53
Urdiñarbe	07:19
Larzabale	09:20
Donibane Garazi	10:58
Azkarate	11:24
Baigorri	12:16
Erratzu	14:14
Arizkun	14:34
Elizondo	15:08
Irurita	15:26
Eugi	18:23
Zubiri	19:02
Erro	20:00
Lintzoain	20:19
Garralda	21:57
Abaurrepea	23:11
Abaurregaina	23:30

## MARTXOAK 16, LARUNBATA

Eskaroze	00:54
Nabaskoze	03:10

Domeñu	04:51
Zangoza	06:51
Oibar	07:36
Irunberri	08:39
Artieda	09:25
Agoitz	10:54
Urrotz	11:52
Egues	13:01
Uharte	13:28
Sarriguren	13:51
Burlata	16:44
Atarrabia	17:04
Iruñea	17:14
Antsoain	17:29
Iruñea	17:43
Artika	18:05
Berriozar	18:16
Barañain	19:15
Zizur Nagusia	19:38
Noain	20:37
Biurrun	21:48
Eneritz	22:29
Obanos	23:04
Gares	23:22
Mendigorría	23:54

## MARTXOAK 17, IGANDEA

Artaxoa	00:55
Tafalla	02:03
Miranda de Arga	03:55
Faltsez	05:31
Martzilla	07:47
Alesbes	08:38
Cadreita	09:45
Castejon	10:33
Tutera	12:24
Cascante	13:35
Tutera	14:47
Arguedas	16:18
Cadreita	17:22

Milagro	18:05
Azagra	19:25
San Adrian	19:58
Andosilla	20:23
Carcar	20:49
Lodosa	21:48
Sesma	22:45

## MARTXOAK 18, ASTELEHENA

Allo	00:10
Lizarra	01:09
Murieta	02:53
Antzin	03:12
Acedo	03:45
Kanpezu	04:54
Genevilla	05:26
Lapoblacion	06:20
Meano	06:34
Kripan	07:05
Elvillar	07:36
Guardia	08:15
Leza	08:50
Urizaharra	10:25
Trebiñu	11:56
Argantzón	12:55
Langraiz	13:45
Zuhatzu Kuartango	15:09
Izarra	16:13
Murgia	17:02
Abetxuko	19:33
Gasteiz (Alde Zaharra)	21:58
Elorriaga	23:11

## MARTXOAK 19, ASTEARTEA

Dulantzi	00:16
Dallo	01:03
Zuhatzu Donemiliaga	01:39
Agurain	01:59
Erdoña	02:35
Zalduondo	02:56
Araia	03:20

Egino	04:12
Ziordia	04:33
Olazti	04:47
Altsasu	05:13
Bakaiku	06:09
Etxarri Aranatz	06:27
Arbizu	07:07
Lakuntza	07:14
Uharte Arakil	07:38
Hiriberri	08:25
Irurtzun	09:13
Latasá	09:34
Oskotz	10:24
Eritzegoiti	11:09
Gelbentzu	11:42
Larraitzar	12:14
Berute	13:52
Aldatz	14:24
Etxarri	14:31
Mugiro	14:50
Lekunberri	15:03
Uitzi	15:39
Leitza	16:31
Goizueta	18:38
Hernani	20:20
Lasarte-Oria	22:15
Usurbil	22:53

## MARTXOAK 20, ASTEAZKENA

Orio	00:02
Zarautz	00:43
Zumaia	02:03
Zestoa	04:04
Azkoitia	05:31
Bergara	07:36
Elgeta	08:34
Ermua	09:58
Eibar	10:30
Soraluze	11:15
Elgoibar	12:09
Mutriku	14:11
Ondarroa	15:03
Markina	16:21

Munitibar-Arbazegi-Gerrikaitz	17:45
Lekeitio	19:36
Elantxobe	21:37
Gernika	23:04

## MARTXOAK 21, OSTEGUNA

Bermeo	01:31
Mungia	03:56
Gorliz	05:43
Plentzia	06:08
Getxo	07:29
Leioa	08:37
Derio	10:20
Galdakao	12:33
Basauri	13:55
Arrigorriaga	14:58
Bilbo	16:59
Barakaldo	20:31
Sestao	21:52
Portugalete	22:08
Santurtzi	22:40
Trapagaran	23:18
Ortuella	23:55

## MARTXOAK 22, OSTIRALA

Abanto	00:27
Muskiz	01:18
Zalla	03:51
Gordexola	05:29
Artziniega	06:25
Aiara	07:56
Urduña	09:14
Amurrio	10:12
Laudio	11:27
Arakaldo	12:35
Ugao	13:09
Zeberio	13:46
Areatza	15:01
Igorre	15:38
Dima	15:59

Amorebieta-Etxano	17:39
Elorrio	20:13
Durango	21:56
Mañaria	23:08

## MARTXOAK 23, LARUNBATA

Otxandio	00:12
Legutio	01:12
Gatzaga	02:24
Arrasate	03:35
Oñati	04:34
Zumarraga	06:54
Gabiria	08:05
Idiazabal	09:37
Beasain	10:57
Ordizia	11:48
Alegia	13:14
Ibarra	14:13
Andoain	15:57
Urnieta	16:42
Hernani	17:25
Astigarraga	17:54
Donostia	19:22
Pasai Antxo	23:01
Lezo	23:33
Oreeta	23:52

## MARTXOAK 24, IGANDEA

Oiartzun	00:33
Lesaka	03:25
Bera	04:01
Sara	05:17
Senpere	06:09
Arbona	07:38
Biarritz	08:07
Angelu	08:45
Baiona	09:17
Hiriburu	09:51
Mugerre	10:22
Baiona	12:29

# 7. HARRO, HERRI, KORRI!

## SARRERA

KORRIKA 23ko HARRO HERRI leloak, "Harri orri ar" jolasa dakarkigu gogora, edizio honetako leloa ahokorapilo baten modukoa baita, jolasaren izena bezala. Kantak ere honela dio, harro herri korri!!

KORRIKA 23ko leloa eta "Harri orri ar" jolas unibertuala elkartzea da jarduera honetan proposatzen dena. *Harri orri ar* beharrian, *Harro herri korri* esanez! Horretaz gain, "Ispilu harrogarrria" ipuinean agertzen den ispiluak ere eragina izango du jolas honetan. Jolas gaitezen ba!

## PROZEDURA

- Irakasleak jolasaren nondik-norakoak azalduko dizkie ikasleei eta "harro", "herri" "korri" zeinuak nola egin behar diren erakutsiko die, laguntza bideoa ikusita eta hauen esanahiaren inguruan sakonduko du, KORRIKA 23rekin loturak eginez.

### Jolasaren nondik-norakoak:

- Taldean jolasteko jolasa izango da (gutxienez 3 lagun), nahiz eta bakarka lehiatuko diren.
- Bakoitzak fitxa bat izango du (txantiloiean topatuko dituzue koloretako furgonetak).

- Helburua, Irundik Baionara doan ibilbidea ahalik eta azkarren osatzea izango da. Horretarako, atxikita duzuen jolas-taula inprimatuko da A3 neurriko kartulina batean.
- Lasteketari hasiera emateko, fitxa guztiak Irungo laukian egongo dira.
- Fitxak aurrera mugitu ahal izateko, ikasleek "HARRO, HERRI, KORRI" esku jolasa egingo dute.
- Baionara iristen den lehenak irabaziko du partida.

### Harro, herri, korri esku jolasa:

- Ikasleek eskuak bizkarraren atzean izango dituzte gordeak eta denak batera "HARRO, HERRI, KORRI" esaterakoan, bakoitzak zeinu bat irudikatuko du eskuarekin (harrotasuna, herria edo korrika).
- *Ispilu harrogarrria* ipuina gogora ekarrita, ikasleek euren isla topatu beharko dute; hau da, zeinu bera atera duen laguna.
- Zeinu bera atera duten ikasleek gelaxkak aurreratuko dituzte Irundik Baionara doan ibilbidean.
  - Bi lagunek zeinu bera ateratzen badute, bakoitzak 2 gelaxka aurreratuko ditu.
  - Hiru lagunek zeinu bera ateratzen badute, bakoitzak 3 gelaxka aurreratuko ditu.
  - Laurek zeinu bera ateratzen badute, bakoitzak 4 gelaxka aurreratuko ditu. Eta horrela, hurrenez hurren.

\*Gerta daiteke lehiakideen artean zeinu bera atera duten taldetxo desberdinak egotea (laukote batean bi lagunek "herri" ateratzea eta beste biek "korri", adibidez). Kasu honetan, taldetxo bakoitzak dagozkion puntuak kontatuko ditu.

- Azalpen guztiak ulertu direnean, ikasleak 4 edo 5 laguneko talde txikitan banatuko dira eta jolasari hasiera emango zaio.
- Ikasleek ibilbidea amaitu ahala emango zaio amaiera jolasari.

## BALIABIDEAK

- Gelako ordenagailua eta proiektagailua.
- Ibilbidearen jolas-taula eta furgonetatxoak.
- [Zeinuen bideo tutoriala](#).



**BAIONA**

Ahetze

Lesaka

Orereta

**DONOSTIA**

Ibarra

Aretxabaleta

Legutio

Igorre

Amurrio

Muskiz

**BILBO**

Galdakao

Ispaster

Ondarroa

Soraluze

Mallabia

Elgeta

Azpeitia

Zarautz

Hernani

Goizueta

Arruazu

Araia

**GASTEIZ**

Argazon

Guardia

Tutera

Mendigorría

**IRUÑEA**

Zangoza

Jaurrieta

Elizondo

**DONIBANE GARAZI**

Larzabale

Urđiñable

**MAULE**

















Arhüe

Domintxine

Sempere

**IRUN**






# 7. ARTELANA

## SARRERA

KORRIKA 23ko logotipo koloretsuak Euskal Herri plural bat irudikatu nahi du eta honen hondoa historia, konpromezua, ilusioa eta etorkizunaz harro dagoen herri bizi baten isla da. Euskal kulturaren eta KORRIKArekin lotura zuzena duten ikonoz beterik dago.

Jarduera honen helburua ikasleak guzti honetaz jabetu eta guztion artean artelan komunitario bat sortzea izango da.



## PROZEDURA

- Irakasleak KORRIKA 23ko logotipoaren hondoko irudia proiektatuko du gelan eta ikasleei galderak luzatuz bertan ikusten dutena partekatuko dute.
- Ondorengo galderak luzatuko zaizkie ikasleei:
  - Gustuko al duzue artelana?
  - Museo batean artelan hau ikusiko bazenute, zein ideia etorriko litzaizueke burura?
  - Zer ikusten duzue bertan? Ezagutzen al duzue artelanean agertzen den elementurik?
  - Zerekin lotzen dituzue elementu horiek?
- Ikasle bakoitzari artelanetik gustuko den irudiaren marrazkia egiteko eskatuko diogu kartulina batean. Euskara, euskal kultura edota KORRIKArekin lotura duen bestelako elementuren baten marrazkia ere egin dezakete.
- Errotulagailu edo margoak erabiliz marrazkia margotzeko eskatuko diegu (irudia sortzeko collage teknika ere erabili liteke argazkian ageri den bezala).

- Eskolako sarreran edo egoki ikusten den pareta batean, ikasle bakoitzak sorturiko irudia itsatsiko da guztion artean mural eder bat osatuz. Irudiak itsasteko garaian konposizioari garrantzia emango zaio, irudiak elkarren ondoan kokatuz, sakonera emanaz bata bestearekin gainjarriz...

Kolore desberdinekin margotutako paper zati handi bat ere erabil liteke oinarri gisa eta ikasleek sortutako irudiak bertan itsatsi.

Sortutako muralaren gainean KORRIKA23ko leloa idaztea beste aukera bat izan liteke.

### Oharra:

Ikasleek irudiak sortzeko zailtasunak dituztela ikusiko bazenute edo hala hobetsiko bazenute, logotipoko irudien txantiloia erabili ditzakezue fotokopiatu eta margotzeko.

## BALIABIDEAK

- Gelako ordenagailua eta proiektagailua.
- Kartulinak.
- Margoak eta errotulagailuak.
- Paper zati handia (zatar papera edo zuria).
- Logotipoaren hondoko irudia

## 7. ARTELANA

### Hona hemen irudiaren inguruko informazioa:

Irudiak ikonografiari ematen dio protagonismoa eta ikono ezberdinek biltzen dituzte euskal kulturaren zein KORRIKAREN zenbait elementu. Euskal kulturaren iruditeria kolektiboaren lekuko da. Ikonografian antzeman daitezke Jose Luis Zumeta, Mikel Laboaren iruditeria, Gernika margolana... Mihise koloretsu bat aurkezten da, alaia, festa giroa iradokitzen duena. Ikono ezberdinen artean lekukoak hartzen du garrantzia handiena.













### Ikonoak


- Begi eta aho solteek Zumetari egiten diote erreferentzia
- Txoriak Mikel Laboari egiten dio erreferentzia
- Gernika artelaneko bonbila eta kriseilua
- Arkatzak "Azterketak euskaraz" mugimendua (omenduak)
- Euskal Herriko mendi federazioa (100 urte betetzen ditu 2024an)
- Irulegiko eskua
- Euskal Herria eta bihotza
- Gramofonoa (Korrika kulturala)
- Lekukoa
- Petoa
- Korrikako furgoneta
- Lauburua
- Arabako mahatsa
- Kantauri itsasoa
- Pirineotako elurra



























*æk*  
23.korrika




































Irun

Baióna

*aek*  
23.korrika



Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

# 8. BINGO MUSIKATUA

## SARRERA


Jarduera honen helburua, KORRIKAK historian zehar izan dituen kantak, eta beren egileak ezagutzea da.

Abestien bitartez, euskal musikaren aniztasunaz ohartuko dira ikasleak, estilo askotariko kantak egin izan baitira KORRIKArako.

Kanta hauek ezagutu eta eurekin jolastuz, taldean ondo pasatzea izango da helburu nagusia, euskal musika gozamenarekin lotuz.

## PROZEDURA

- Bingo musikatuan banaka edo bikoteka jolasteko aukera egongo da. Ikasle bakoitzari edo bikoteari txartel bana emango dio irakasleak.
- Irakasleak unitate didaktikoen webguneko [estekan](#) klikatuta KORRIKAKo edizio desberdinetako kantak jarriko ditu ausaz, musika soilik, irudirik gabe. Ez da beharrezkoa izango kantak osorik entzutea (youtubeko kanalean “erreproduzitu zerrenda ausaz” botoia klikatuko dugu). Kasu! Korrika 21, 22 eta 23ko kantak ez daude zerrendan, beraz multimedia ataletik erreproduzitu beharko dituzue.



- Ikasleek, KORRIKAKo kantak identifikatu ahala euren txartelean markatu beharko dituzte.

Ikasle txikienen kasuan, kanta identifikatzeko zailtasun handiak izango balituzte, irakasleak lagunduko die entzuten ari diren kanta zein ediziotakoa den asmatzen.

- Lerro oso bat osatuz gero “KORRIKA LERROA!” oihukatuko dute eta kanta guztiak osatuz gero “BINGO KORRIKA!”.
- Txarteleko kanta guztiak osatzen lehena denak lortuko du garaipena.

### Oharra:

Bingoa gauzatzeko zailtasunak ikusiko balira, KORRIKAKo edizio desberdinetako kantak baliatuz, “Korrikaraokea” antolatzea izan daiteke beste aukera bat. Kasu honetan, irudiak ere proiektatuko ditugu, ikasleek abestien hitzak irakur ditzaten.

## BALIABIDEAK

- Ordenagailua eta bozgorailuak.
- [Bingorako txartelak](#).



**23.korrika**

KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 2: Santu adi korrika
KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 3: Egan
KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 7: Irigoien anaia eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 14: Ni ere bai



**23.korrika**

KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 8: Aide Korrika
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 20: Zirkorrika
KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 14: Ni ere bai



**23.korrika**

KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 8: Aide Korrika
KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak



**23.korrika**

KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 18: Bagoazi
KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni



**23.korrika**

KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 18: Bagoazi
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni	KORRIKA 9: Bizi ganoraz
KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak



**23.korrika**

KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 3: Egan
KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 5: Herri sarri larri
KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara



**23.korrika**  
aek

KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 19: Denok korrikara
KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 8: Aide Korrika



**23.korrika**  
aek

KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 11: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!	KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 23: Harro herri korri!



**23.korrika**  
aek

KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 19: Denok korrikara
KORRIKA 11: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!
KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 8: Aide Korrika



23.korrika *æk*

KORRIKA 16: Ongi etorri laguni	KORRIKA 21: Kiika	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 23: Harro herri korri!
KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik



23.korrika *æk*

KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 11: 1 eta 1
KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!
KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik



23.korrika *æk*

KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik
KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 5: Herri sarri larri
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 2: Sartu adi korrika





**23.korrika**

KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 15: Heldu	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 4:Lontxo Aburuza



**23.korrika**

KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 22: Hitzekin
KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 9: Bizi ganoraz
KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni	KORRIKA 20: Zirkorrika



**23.korrika**

KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 12: Big Beñat
KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 15: Heldu
KORRIKA 4:Lontxo Aburuza	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 9: Bizi ganoraz



**23.korrika**

KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 5: Herri sarri larri
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 15: Heldu
KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 23: Harro herri korri!



**23.korrika**

KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 12: Big Beñat
KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 11: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 3: Egan



**23.korrika**

KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 12: Big Beñat
KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara	KORRIKA 21: Kiika
KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!	KORRIKA 14: Ni ere bai



**23.korrika**

KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 15: Heldu
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 23: Harro herri korri! korri!	KORRIKA 19: Denok korrikara
KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 4: Lontxo Aburuza



**23.korrika**

KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 2: Sartu adi korrika	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 9: Bizi gonoraz	KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik
KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 16: Ongi etorri lağuni!	KORRIKA 18: Bagoazi!



**23.korrika**

KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe
KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 16: Ongi etorri lağuni!	KORRIKA 8: Aide Korrika
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 9: Bizi gonoraz	KORRIKA 18: Bagoazi!



**23. korrika**

KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 12: Big Beñat
KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 19: Denok korrikara



**23. korrika**

KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 15: Heldu
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!
KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe



**23. korrika**

KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 15: Heldu	KORRIKA 4: Lontxo Aburuza
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 11: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe



**23.korrika**  
æk

KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 7: Irigoien anaiak eta Mikel Erramuspe	KORRIKA 5: Herri sarri larri
KORRIKA 8: Aide Korrika	KORRIKA 15: Heldu	KORRIKA 18: Bagoazi

[ena.net/](http://ena.net/)



**23.korrika**  
æk

KORRIKA 21: Klika	KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 4: Lontxo Aburuza	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara



**23.korrika**  
æk

KORRIKA 23: Harro herri korri!	KORRIKA 3: Egan	KORRIKA 16: Ongi etorri laguni!
KORRIKA 12: Big Beñat	KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 9: Bizi ganoraz



**23.korrika**

KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 23: Harro herri korri!
KORRIKA 19: Denok korrikara	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika
KORRIKA 18: Bagoazi	KORRIKA 1 1: Xabier Amurizaren bertsoak	KORRIKA 21: Kiika



**23.korrika**

KORRIKA 11: 1 eta 1	KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 23: Harro herri korri!
KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 17: Euskalakari	KORRIKA 6: Gu AEK-koak gara
KORRIKA 9: Bizi ganoraz	KORRIKA 4: Lontxo Aburuza	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika



**23.korrika**

KORRIKA 20: Zirkorrika	KORRIKA 5: Herri sarri larri	KORRIKA 13: Gero bat gaur danik
KORRIKA 15: Heldu	KORRIKA 10: Euskal Herria korrika	KORRIKA 2: Sartu adi korrika
KORRIKA 14: Ni ere bai	KORRIKA 22: Hitzekin	KORRIKA 23: Harro herri korri!

# 9. PLAZARA DANTZARA!

## SARRERA

Jarduera honen helburua KORRIKako girotze lanarekin jarraitzea da. Gorputz adierazpena baliatuz, aurtengo kantaren koreografia dantzatuko dute ikasle guztiek elkarrekin.

KORRIKA TXIKIaren bukaerako emanaldirako aproposa izan daiteke, adin desberdinetako ikasleak elkarrekin koreografia gauzatzeko.

## PROZEDURA

- Irakaslearen laguntzarekin eta tutoriala jarraituta, koreografiako urratsak irakatsiko dira lehenik. Ikasle trebeenak lehenengo lerroan jartzea aholkatzen da, atzeko lerroetako ikasleek erreferentzia gisa izan ditzaten. Garrantzitsua izango da urrats bakoitza ikasi bitartean geldialdiak egiten joatea.

- Urratsak ikasi ondoren, koreografiaren bideo osoa erreproduzituko da, urrats batetik besterako loturak nola gauzatu behar diren ikusteko.

- Hainbat aldiz entseiatu ondoren, emanaldi bat egin daiteke ikastetxean bertan, kidetzea martxan jarriz, maila desberdinetako ikasleak elkartuta.

- Ikasle txikienen kasuan, urratsak sinplifika daitezke koreografia errazago ikas dezaten.

\*Kidetze plana abian jartzen bada, ikastetxeko ikasle helduenak izan daitezke koreografia ikasle txikiagoei irakasteaz arduratuko direnak.

### Oharra:

Ikasleen artean koreografia ikasteko zailtasunak ikusiko balira, HARRO unitateko "Ispilu mispilu" jarduera egin liteke, gorputz adierazpena modu libreago batean lantzeko.

## BALIABIDEAK

- Koreografiaren bideoa
- Entseguak egiteko espazio egokia.
- Bozgorailuak, kanta entzuteko.

# 10. OMENALDIA

## SARRERA

Jarduera honen helburua, KORRIKAK edizio bakoitzean euskararen alde diharduen pertsona edo erakunde bat omentzen duela jakinaraztea da. Omenduek bezalaxe, gure ikasleek ere euskararen aldeko jarrera izan dezaten bilatu nahi da.

Jarduera honetan, ikasleei iparraldeko ikasleek duten/duzuen arazoaren berri emango zaie modu xume batean eta ondoren, omenaldi gisa, marrazkiak egiteko eskatuko diegu.

Irakasleak, ikasleen marrazkiak gutunazal batean sartu eta Azterketak euskaraz kolektiboari bidaltzea proposatuko da.

## PROZEDURA

- Irakasleak ikasleei jakinaraziko die KORRIKAK edizio bakoitzean euskararen alde diharduten pertsona edo erakundeak omentzen dituela eta elkarrizketa bideratuko du eurek omendu nahiko lituzketenen inguruan galdetuz:
  - Badakizue zer esan nahi duen norbait omentzeak edo norbaiti omenaldia egiteak?
  - Egin al diozue inoiz norbaiti omenaldi bat?
  - Zuek nor omenduko zenukete? Nor da zuentzat garrantzitsua?

- Aurtengo edizioko omenduak, iparraldeko ikasle nahiz gurasoek osatutako Azterketak euskaraz taldea dela adieraziko die eta elkarrizketa bideratuko du omenduen inguruan ondorengo galderak luzatuz:
  - Zuek zein hizkuntzatan ikasten duzue?
  - Ba al dakizue Euskal Herriko lurralde guztietan ezin direla ikasketa guztiak euskara hutsean osatu?

- Sarrera eman ondoren, irakasleak azalduko die ikasleei zergatik izan diren omenduak *Azterketak euskaraz* kolektiboko partaideak, euren ikasketak euskara hutsean amaitu ahal izateko borrokan ari direla adieraziz. Helburu baten alde lanean dihardutenen aldeko elkartasuna adieraztea zein garrantzitsua den azalduko die eta honen inguruan elkarrizketa sustatuko du:
  - Ba al dakizue zer den elkartasuna?
  - Arazo bat duzuenan, gustatzen al zaizue gainerakoen babesa sentitzea?

- Omenduen inguruko lanketa egin ostean eta elkartasunaren garrantzia azpimarratu ondoren, eurek ere, iparraldeko lagunei elkartasun gutunak bidaliko dizkietela adieraziko die irakasleak.

- *Azterketak euskaraz* [kantua](#) proiektatuko da gelan eta ondoren, ikasleei iparraldeko lagunentzat marrazkiak egiteko eskatuko diegu, euren babesa eta maitasuna adieraziz.

- Egindako marrazkiak gutunazal batean sartuko dira eta Azterketak euskaraz kolektiboari bidaliko zaizkio, eskolako ikasleen omenaldi txikia egiteko.

## Oharra:

Jarduera bere horretan egiteko denborarik izango ez bazenute, eskolako ikasle, langile nahiz gurasoekin argazki bat atera zenezakete, zuen elkartasuna adieraziz eta ondoren, Azterketak Euskaraz kolektiboari bidali edo eskolako webgune nahiz sareetan argitaratu.

## BALIABIDEAK

- "Nire omenaldia" fitxa
- *Azterketak euskaraz* [kantua](#)
- Margo eta errotulagailuak



## 10. OMENALDIA

Helbide hauetara bidal daitezke gutunak:

<p><b>BERNAT ETXEPARE LIZEOA</b></p> <p><b>Helbidea:</b> 5 Mayi Ariztia karrika 64100 Baiona</p> <p><b>E-posta:</b> lizeoa@betxepare.eus</p>	<p><b>ESTITXU ROBLES KOLEGIOA</b></p> <p><b>Helbidea:</b> 12 bis Mounede etorbidea - 64100 Baiona</p> <p><b>E-posta:</b> idazkaritza@baionakolegioa.eus</p>	<p><b>KATTALIN ELIZALDE KOLEGIOA</b></p> <p><b>Helbidea:</b> 2597 Zuraideko Bidea 64310 SENPERE</p> <p><b>E-posta:</b> idazkaritza@kei.eus</p>
<p><b>MANEX ERDOZAIN TZI ETXART KOLEGIOA</b></p> <p><b>Helbidea:</b> 64120 Lart zabale</p> <p><b>E-posta:</b> meek.idazkaritza@seaska.eus</p>	<p><b>PIARRES LARZABAL KOLEGIOA</b></p> <p><b>Helbidea:</b> Eugène Corre etorbidea, 3 - 64500 Ziburu</p> <p><b>E-posta:</b> idazkaritza@plk.eus</p>	<p><b>XALBADOR KOLEGIOA</b></p> <p><b>Helbidea:</b> Ezpeletako bidea 64250 Kanbo</p> <p><b>E-posta:</b> xalbador@seaska.eus</p>

# Azterketak euskaraz

Gure elkartasuna,  
nire omenaldia



# 11. PETOA

## SARRERA

KORRIKako edizio guztietan ezinbestekoa den elementuetako bat petoa da. Milaka lagunek soinean eramaten dute euskararen alde lasterka egiteko.

Jarduera honetan, KORRIKA TXIKIraiko nahiz KORRIKA ofizialerako petoak prestatuko ditugu. Ingurumenean ahalik eta kalte gutxien sortzeko helburuarekin, plastikoaren erabilera, ahal dela, baztertu egingo dugu eta papera hobetsiko dugu petoak egiteko garaian.

Aurreko ediziotako petoak erabiltzea ere beste aukera bat izan liteke.

## PROZEDURA

- Petoaren aurreko aldean KORRIKako logo orokorra agertuko da eta honen gainaldean ikasleek KORRIKA 23ko logoaren bertsio bat margotuko dute, modu librean, sormenari bide emanez (ondorengo orrian). Gogoko duten zenbaki bat ere idatz dezakete bertan.
- Petoaren atzeko aldean aurtengo leloa agertuko da. Hau ere modu librean margotu eta apaindu ahal izango dute, koloretako gometxak erabiliz, adibidez.
- Bi aldeak margotu ondoren ertzetatik moztuko dugu. Atzeko eta aurreko aldeak kamisetari lotuko dizkiogu kateorratzen laguntzaz edota soka edo lazoak erabiliz eta ertzak lotuz.
- Erabiliko ditugun materialak ahalik eta berrerabilgarri edo birziklagarrienak izango dira.
- Herriren batean ikastetxe bat baino gehiago balego eta KORRIKA TXIKIA elkarrekin ospatuko balute, petoaren atzealdean KORRIKA TXIKIlan parte hartuko duten ikastetxe guztien logotipoak txertatu daitezke, euskararen aldeko ekimen honetan denek bat egiten dutela adierazteko.


## BALIABIDEAK


- Aurreko urteetako petoak (izanez gero).
- Petoaren fotokopia Din A-4 tamainara handituta
- Margoak
- Gometxak
- Artaziak
- Kateorratzak
- Soka, lazoa edo antzekoa.

VARRI  
HOI




æk  
23. korrika





# æk 23. korrika



korrika.eus

*æk*  
23.korrika

HARRERO  
HEERROH

Irundik Baionarat  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

*æk* KORRIKA

# 12. KORRIKA TXIKIA

## SARRERA

KORRIKA TXIKIA kasuan kasuko herritik KORRIKA 23 pasatzen den egunean egitea litzateke egokiena. Dena den, KORRIKA 23 pasa aurretik ere egin daiteke KORRIKA TXIKIA. KORRIKA 23 herritik pasatuko ez balitz, lurraldea hartuko da erreferentziazat.

Jarduera hau, lagunartean eta giro alaian egitekoa da, hortaz, ezinbestekoa da ikasleen arteko kidetzea eta errespetuzko jarrera bultzatzea.

Herri eta zonalde bakoitzean euskaltegiek eman ohi dituzten jarraibideen arabera antolatuko da KORRIKA TXIKIA.

## PROZEDURA

- Ikasleak aurrez adostutako ibilbideko puntu desberdinetan egongo dira, adinaren arabera antolatuta.
- Lekukoa eskuz esku joango da, ikasle zaharrenetatik hasi eta gazteenetaraino.
- KORRIKA TXIKIA iristean, ikasle zaharrenek ohorezko hesia osatuko dute, eta ikasle gazteenak ttipi-ttapa pasatzean, txalotu egingo dituzte.
- Bukaeran, lekukoaren barruan joango den mezua irakurriko da eta ikasle helduagoek dantzatuko duten KORRIKA 23ko kantaren koreografia ikusiko dute.

## BALIABIDEAK

- Petoa soinean.
- Megafonian KORRIKA 23ko kanta; aurreko urteetako KORRIKAko [kantak](#), Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Tipi-Tapa, Korrika!* diskokoak ere bai.

## Pankarta

KORRIKA 23ko pankarta eskolan bertan sortu liteke ikasleen laguntzarekin. Webgunean zintzilikatuta daude ereduak.

*æk*  
23.korrika



**Irundik Baionarat**  
2024ko martxoaren 14tik 24ra

**HERRI** 6-9 URTE

